

**FUNTZIONAMENDU-ARAUAK**  
**Ospitaleratze-unitatea – NEFROLOGIA-ZAINKETA ARINGARRI UNITATEA****Guri abisatzeko, ERABILI GELAKO TXIRRINA**  
**GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN BETE BEHARREKO ARAUAK**

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitatetik borondatez irtetekotan, eskatzen dizugu osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea, laguntza- asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Zure garbitasunerako, gelan bainugela duzu, eta dutxa Unitatean.
- Behar gaituzun guztietan jo txirrina; izan ere, deituz gero lana erraztuko diguzu, eta, gainera, erizaintzako kontrolera bazoaz baliteke eragozpenak sortzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Bisitariak ezin dira egon korridore edo pasilloan. Gelatik irtenez gero, igogailuen atarira joan behar duzu.
- Gogoan izan ospitalean ISILIK ibili behar dela.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratze unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lurgabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

**MEDIKUAREN BISITA / SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA**

- Egunero, igandeetan izan ezik.
- 09:00etatik 12:00etara, gutxi gorabehera.
- Medikua bisita egiten ari denean, pazientearen senitartekoek unitatetik kanpo itxaron beharko dute, igogailuen atarian.
- Bisitan emango dizu medikuak egoeraren berri.

**OTORDUAK****BISITARIAK**

Unitatearen arabera:



09:00 Gosaria  
13:00 Bazkaria  
17:00 Askaria  
20:00 Afaria

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.** Nahi baduzu, senitarteko bat egon daiteke zurekin gau eta egun.

**BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**

Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



**Sarrera-frogagiria** Gaixoak Onartzeko Zerbitzuan biltzen da (beheko solairua).

**TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



**Telebista** ospitaleaz kanpoko zerbitzua da, eta txipdun txartelarekin eta aurikularrekin funtzionatzen du. Atariko makinan eros daitezke txartelak eta aurikularrak (norberarenak ere erabil daitezke). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebistak eta telefonoak sistema berari konektatuta daude, beraz, ezin dira telebistak deskonektatu, bestela telefono-zerbitzua ere ezin baita erabili.

**KAFETEGIA** *Ordutegia:* - 7:30etik 22:00etara.

Erdisotoan dago.  
Igogailuen atarian badaude kafe- eta freskagarri-makinak.

**OSPITALE-ALTA.** Ahal izanez gero, bezperan abisatuko zaitugu.

Alta ematen den egunean senitartekoren bat bertaratzeko komeni da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

**ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA**

Harremanetarako Telefonoa: 618 75 14 15.

**PAZIENTE ETA ERABILTZAILEEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren arreta behar baduzu, unitateko gainbegiralearen bitartez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenerik ostegunera).